



---

## AKTA

Cuadrilla de Ayala-Aiarako Kuadrillaren **GOBERNU BATZORDEAK** eginiko **ezohiko bilkurarena,**

**2019ko abenduaren 27an,**

**Laudioko udaletxeko bilkura-aretoan, 13:03ak** direnean, jarraian zerrendatzen diren batzordekideak elkartu dira **ezohiko bilkura** egiteko, **lehen deialdian**. Cuadrilla de Ayala-Aiarako Kuadrillako **Gobernu Batzordeko presidente Encina Castresana Astarloa andrea** izan da bilkuraren burua, eta M<sup>a</sup> Virginia Carcelén García andrea, behean izenpetzen duena, aritu da idazkari-lanetan.

Jarraian aipatutako jaun/andre batzarkideak bertaratu dira:

Encina CASTRESANA ASTARLOA (EAJ-PNV)  
Ander AÑIBARRO MAESTRE (EAJ-PNV)  
Andoni RODRÍGUEZ ORÚE (EAJ-PNV)  
Eva MARQUÍNEZ BLANCO (EAJ-PNV)  
Maite CORTÁZAR AGÜERA (EAJ-PNV)  
Gentza ALAMILLO UDAETA (EAJ-PNV). Juan José ESCUZA DEL CAMPO (EAJ-PNV) jaunak bere botoa eskuordetu zion Alamillo jaunari, legez justifikatutako arrazoi batengatik.  
Iñigo PINEDO VADILLO (EAJ-PNV)  
Josune IRABIEN MARIGORTA (EAJ-PNV)  
Txerra MOLINUEVO LAÑA (EAJ-PNV)  
Alberto ARTETXE VICENTE (EAJ-PNV)  
Nuria LÓPEZ LUMBRERAS (EAJ-PNV)  
Lamia ARCAS NOGALES (EH-BILDU)  
Nagore GOMARA PICAZA (EH-BILDU)  
Iñaki IBARLUZEA ORTUETA (EH-BILDU)  
Irene ITURBE ERRASTI (EH-BILDU)  
Jon BERGANZA URRUELA (EH-BILDU)  
Joseba VIVANCO RETES (EH-BILDU)  
Arkaitz SAN JOSÉ MARTÍNEZ (EH-BILDU)  
Maitane SALUTREGI GARDEAZABAL (EH-BILDU)  
Alvaro BARRIOS MEDINA (OMNIA)  
María Dolores MURIEL AROCA (PSE-EE)  
David ROMERO CAMPOS (PSE-EE)  
Sergio TATO EGUREN (OKONDO AURRERA)  
Iratxe PARRO UZQUIANO (AIARA BATUZ)

Ez dira bertaratu eta ezin etorria adierazi dute honako jaun/andre batzarkideek:



---

Juan José ESCUZA DEL CAMPO (EAJ-PNV) (bere botoa Alamillo Udaeta jaunari eskuordetu dio)

Monserrat ANGULO SOLLOA (EAJ-PNV)

Karmele POBLACIÓN MARTÍNEZ (EH-BILDU)

Naiara OTAOLA GONZÁLEZ (EH-BILDU)

Nerea GONZÁLEZ GARCÍA (OMNIA)

**Batzordeburu andreak, lehenengo deialdian, 13:03an**, osoko ohiko bilkura irekita dagoela adierazi du, idazkariak bilera abiarazi ahal izateko quoruma badagoela egiaztatu ondoren, Kuadrillak arautzen dituen Foru Arauaren (azaroaren 20ko 63/1989 Foru Araua) 25. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, besteak beste abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldarazitako Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/1985 Legea) 46.2.c) artikuluari lotuta.

**Batzordeburu andreak** jakinarazi du Juan José ESCUZA DEL CAMPO (EAJ-PNV) jaunak ere botoa eskuordetu diola Gentza ALAMILLO UDAETA (EAJ-PNV) jaunari legez justifikatutako arrazoi batengatik (azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauko 24.5. artikulua arabera).

## **1.- EGIAZTAGIRIAK AURKEZTEA**

**Batzordeburu andreak**, Okondoko Udalaren izenean, deia egin dio Naiara Otaola Gonzalez batzordekide andreaki (EH-BILDU), bere egiaztagiria aurkez ditzan.

Aipatutako batzordekide andrea ez zenez bilkura horretara joan, batzordeburu andreak gogorarazi du dei hori egingo duela organo horrek egiten duen hurrengo saioan, Batzordearen aurrean egiaztagiria aurkez ditzan, batzordekidea bere funtzioak betetzen hasi ahal izateko.

## **2.- ONARTZEA, BIDEZKOA BADA, AURREKO SAIOKO AKTAREN ZIRRIBORROA**

Egindako azken saioaren akta saio honetako deialdiarekin batera atxiki zen eta batzordeburuak galdetu du horren inguruko alegaziorik egin nahi den. Ez denez inongo alegaziorik egin, aho batez **ERABAKI DA** 2019ko azaroaren 28an egindako saioaren akta onartzea.

## **3.- ARABAKO ADINEKOEN KONTSEILU SEKTORIALEAN KUADRILLAKO ORDEZKARIA IZENDATZEA**



**Batzordeburu andreak** gogorarazi du urriaren 23an Kuadrillari jakinarazi zitzaiola Arabako Adinekoen Kontseilu Sektorialaren funtzionamendurako araudia eta horren arauak aldatu direla. Horietan adierazten da kontseiluan Kuadrilletako bakoitzak ordezkari bat izan dezakeela. Beraz, Kuadrilla honi dagokio ordezkari bat izendatzea Kontseilu horren kide gisa. Halaber, eskatu dute pertsona hori adineko pertsona bat izan dadila eta Kuadrillako tokiko eremuko gizarte-arlo horren parte izatea. Horretarako, kontuan hartu behar dugu Kontseiluak gutxienez saio bat egiten duela seihilekoan behin, Gasteizen izan ohi dela eta saioetara joatea doakoa dela.

Hori dela eta, **batzordeburu andreak** talde politiko batzarkideei galdetu die hautagaien bat proposatuko duten, ondoren horien artean bat hautatzeko.

Hautagaiak aurkezterakoan, talde politiko batzarkideek hautagai bakarra aurkeztu dute: EAJ-PNV eta SOZIALISTEK **titular** proposatu dute **MARIANO HERNANDEZ LORENZO jn.**, eta **horren ordezeko DOMINGO TXARTE VIÚELA jn.**

Ez da hautagai gehiagorik aurkeztu. Beraz, bozkatu egin da eta gehiengoak, aldeko 13 botorekin (EAJ-PNVren 11 eta ALDERDI SOZIALISTAREN 2) eta gainerako taldeen abstentzioarekin (11 boto), honako **ERABAKI** hau **HARTU DA**:

**LEHENENGOA.-** Arabako Adinekoen Kontseilu Sektorialean, Cuadrilla de Ayala-Aiarako Kuadrillako **ordezkari** gisa izendatzea **MARIANO HERNANDEZ LORENZO jn.**, eta **horren ordezeko** gisa **DOMINGO TXARTE VIÑUELA jn.**

**BIGARRENA.-** Erabakia interesdun guztiei jakinaraztea.

#### **4.- 2020ko AURREKONTUA ONARTZEA**

**Batzordeburu andreak** adierazi du 2020ko aurrekontuko aurreproiektuaren inguruan eztabaidatu dutela arlo horretako Informazio Batzordean, 2019ko abenduaren 2an eta 16an egindako bileretan. Horietan eztabaidatutakoaren arabera, gehiengoak erabaki du 2020ko aurrekontua onartzea. Jarraian, aurrekontua irakurri du. Ondoren, Kuadrillako arlo edo zerbitzu bakoitzerako bideratutako aurrekontua azaldu du. Honako hau da azalpen horren laburpena:

Azaldu du 2020ko gastuen aurrekontuaren zenbatekoa 4.108.493,63 € dela. Zenbateko hori 2019rako onartutako hasierako aurrekontua baino 190.066,52 € gehiago da (% 4,85, % 2,15). Izan ere, Eskualdeko Enplegu Planean aldaketa bat egon da, Kuadrillako batzordeburuaren soldata aldatu da eta zerbitzuak kontratatzeke hirigintza-aholkularitza ematen ziguten teknikariak Kuadrillako langile gisa hartu dira. 2019ko aurrekontuarekin konparatzen badugu eta gaikuntzak eta kreditu-sarrerak gehitzen baditugu (4.081.289,13 €), aldea 27.204,50 € da. Jarraian zerbitzu bakoitzaren aurrekontua azaldu du:



---

**GASTU OROKORRAK.** Gastu Orokorrek funtzionamendu-gastuak barne hartzen dituzte eta 271.663,61 € dira. Arlo honetan, honako berritasun hauek daude: batzordeburuaren soldata, LZrako lana eta lanpostuen balorazioa eta hirigintza-aholkularitzako zerbitzuaren eskeetan oinarritutako gastu juridikoak eta CESParen jardueren aurreikuspenak. Horrez gain, protokoloaren gastuak handitu dira.

**EUSKARA ETA GAZTERIA.** Aurten handitu egin da Kuadrillen arteko bertso txapelketagatik, 2020an egin behar delako (2 urtean behin egiten da). Gazteria Plana aktibatzen saiatuko gara eta horretarako finantzaketa iturriak bilatzen.

**KULTURA, GIZARTE ONGIZATEA ETA EMAKUMEA.** Arlo horiek aurrekontu ia berdina dute; murrizketa txikiak egingo ditugu soldatetan, 2019ko langileen bajak direla eta. Hala ere, gizarte-langilearen eta administrazio-laguntzailearen kontratuak mantentzen dira, Ongizaterako Foru Sailarekin dugun Hitzarmenak finantzatzen dituelako.

**INGURUMENA.** Kuadrillan gastu handiena duen arloa da. Aipagarriena da aldatu egin direla udal-ekarpenen irizpideak, udal bakoitzak benetan jasotako zerbitzuen arabera. Era berean, aipagarria da edukiontzietan egindako inbertsioa. Edukiontziak AFAk finantzatu ditu. Langileen kostua handitu egin da horien bajak eta arloko teknikariaren lizentziak direla eta.

Arlo honetan AFAk finantzatutako Neguko Bidezaintza zerbitzua dago eta meteorologiaren arabeko gutxi gorabeherako aurrekontua du.

**BESTE ARLO BATZUK.** Horietan honako zerbitzu hauek daude:

**ARTXIBOA.** 3 udalerrri txikien eta Kuadrillaren beraren eskura dago, iazko ia partida berdinarekin.

**HIRIGINTZA-AHOLKULARITZA.** Arlo honek gorakada handia izan du teknikariek aurkeztutako eskeak direla eta.

**EKONOMIA SUSTATZEKO ARLOA.** AEKOra bideratutako partida handitu da. Nabarmenezkoa da LANBIDEk jasotako dirulaguntzen arabera egiten den EEParen gastua.

**TURISMOA** ere arlo honetatik kudeatzen da eta Kuadrillak AFA eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzak kudeatzen ditu.

**EGOITZA.** Proiektu hau 40.000 €-rekin mantentzen da, AFAREN finantzaketa ezarriz.

Aurkezpenaren ondoren, batzordeburuak hitza eman die taldeei.

**Parro Uzquiano andreak (AIARA BATUZen bozeramaile gisa)** adierazi du aurkeztutako aurreproiektuaren aurka bozkatuko dutela. Izan ere, ez daude ados Aiarako Udaleko hirigintza-aholkularitzako espedientearekin egindako kudeaketarekin. Haien desadostasuna honako idatzi literal hau irakurriz eman dute aditzera:

“Gure taldeak aurka bozkatuko du, batez ere hirigintza-aholkularitzako zerbitzuetan kudeaketa egiteko dagoen asmoa dela eta.



---

2020. urteko memorian islatzen den bezala, datorren urte honetarako, zerbitzuaren gastua handituko da, lau teknikariren soldatak lan-kontratu batera txertatuko direlako eta, horrez gain, kontratazio independenteak begiesten direlako.

2019ko azaroaren 28an eginiko ohiko bilkuran, eguneko aztergaien zerrendaren zazpigarren puntuan onartutako azken dekretuen berri eman zen. Gure taldeak lehenengo bi dekretuen inguruan galdetu zuen. Izan ere, bi horiek gaur egun Aiarako Udalerako lan egiten duten hirigintza-zerbitzuko teknikariek jarritako errekursoei buruzkoak ziren. Gure taldeaz gain, OMNIAk ere horren inguruan informazioa jasotzeko batzorde bat deitzeko eskatu zuen. Batzordeburuak erantzun zuen langileen batzorde bat deitzeko asmoa zuela, aipatutako gaiaren inguruko informazioa emateko; hori, gainera, landu beharreko gai garrantzitsu batekin lotuta zegoen: Kuadrillako LZ.

2019ko abenduaren 2ko Ogasun Batzordean, aurkeztutako aurrekontuaren zirriborria azaltzean, aipatu zen ez zela oraindik Aiarako teknikariek epaiketa egin, baina beste bi teknikariren epai berdina espero zela. Horrek partida handitzen zuen, lan-kontratuak egin behar zitzaizkielako. Horrez gain, aurrerago azaldu zuen, LZ onartu eta gauzatzekoan, kontuan hartu beharko zirela pertsona horietako bakoitzaren kalte-ordainak, hau da, lan egindako urte bakoitzeko 45 egun ordaintzea.

Abenduaren 16an egindako azkeneko Ogasun Batzordean, AIARA BATUZek proposatu zuen lan-kontratuak soilik bi pertsonari egiteko aukera azter genezakeela, eta bi pertsona horiek % 100eko lanaldia izatea; izan ere, orain dituztenak ehuneko laburragoak dira. Gainera, eskatu zen Kuadrillari ekonomikoki zenbat kostatuko litzaiokeen aztertzeo, kalte-ordainei begira lan egindako urteak gehitzea ekiditeko.

Aurrekontua onartu aurretik gure eskaera kontuan hartu ez zenez eta langileak kontratatzeo modu egokia ez denez, gure botoa 2020. urterako aurkeztutako aurrekontuaren aurkakoa izango da”.

Jarraian, **Romero Campos jaunak (SOZIALISTEN bozeramaile gisa)** adierazi du bere taldeak alde bozkatuko duela; batetik, uste dutelako aurrekontua onartzean erakundeei egonkortasuna ematen zaiela gobernatzeo, eta, bestetik, bildutako dirua aurrekontu-egonkortasunarekin bakarrik itzul diezaiekegulako herritarrei.

Ondoren, **Medina Barrios jaunak (OMNIAren bozeramaile gisa)** adierazi du bere taldeak ere aurka bozkatuko duela, AIARA BATUZ taldeak esandakoaren alde baitaude.

Jarraian, **Arcas Nogales andreak (EH-BILDUren bozeramaile gisa)** adierazi du aurrekontua bera landu aurretik, hori onartzeko prozeduraren inguruko hausnarketa bat egitea nahi dutela. Horren ildotik, adierazi du lehenengo batzordean aurrekontuaren zirriborro bat aurkeztu zela, oraindik zehaztu gabe zegoena. Gainera, oso denbora gutxi utzi zen taldeek



alegazioak aurkez zitzaten, are gehiago horren dokumentu garrantzitsua izanik. Ongi aztertzeke, emandako denbora baino gehiago behar da. Halaber, aurrekontuan batzordeburuaren liberazioa aurreikusten da. Gu horren alde egongo ginateke, batzordean esan bezala, horren funtzioak eta arduraldiaren ehunekoaz azaldu izanen balira. LZri bideratutako partidari dagokionez, hasteko, oraindik egin gabe dago eta bada ordua egiteko. Hala ere, Arcas Nogales andreak adierazi du Aiara Batuz taldeak esandakoarekin bat datorrela. Bere esanetan, hirigintza-zerbitzuaren kudeaketa ez da oso ona izan eta espero du orain batzordeburua liberatuta dagoenez, adierazitakoa konpondu ahal izatea. Horrek guztiak aurkeztutako aurrekontuaren alde egin ezin izatera bultzatzen ditu, eta, batez ere, uste dute aurrekontua gehiago landu behar dela, eta denbora gehiagorekin.

**Alamillo Udaeta jaunak (EAJ-PNVren bozeramaile gisa)** adierazi du erakundea gehiago sendotu eta balioetsi behar dela. Bere ustez, Kuadrilla funtsezko erakundea da udalentsat, batez ere hiru udal txikientzat, beraz, erakunde hau gabe udal txikientzat ezinezkoa izango litzateke Kuadrillak ematen dizkien zerbitzuak eskaintzea. Uste du batzordeburuak argi azaldu duela 2020ko aurrekontuko edukia partida bakoitzean (EEP, LZ, Turismoa, etab.), eta aldaketa nagusiak azpimarratu dituela. Hori dela eta, arloko Informazio Batzordearen eta teknikarien lana eskertu nahi du.

**Batzordeburu andreak** azaldu du aurkeztutako aurrekontua udalek Kuadrillari eskatzen dizkioten beharren eta zerbitzuen arabera egin dela. Hori dela eta, kontinuitate izan daitekeela esan daiteke, baina Kuadrilla udalek egiten dituen eskaerak erantzuten saiatzen da eta udalek ez dute beste ezer erreklamatu. Beraz, egin beharreko lana zerbitzuak hobetzea da, eta finantzaketa iturri berriak aurkitzea.

Eztabaidaren ostean, bozketa egin da eta gehiengoak honako hau **ERABAKI DU** aldeko 13 botorekin (EAJ-PNVren 11 eta SOZIALISTEN 2), aurkako 3 botorekin (OKONDO AURRERAREN 1, AIARA BATUZEN 1 eta OMNIAREN 1) eta EH-BILDUREN 11 abstentziorekin:

**“IKUSI DA** arloko teknikariak aurkeztutako 2020 ekitaldiko aurrekontuaren aurreproiektua.

**IKUSI DA** ez direla kontuan hartu 2020 ekitaldirako aurrekontuaren aurreproiektuari aurkeztutako zuzenketak.

**LEHENENGOA.-** Hasieran onartzea 2020ko aurrekontua, 4.108.493,63 €-ko gastu eta sarreraren zenbatekoan.

**BIGARRENA.-** Batzordeburuari eskatzea behin betiko onar dezala, beharrezko izapideak egiteko”.

## **5.- ONARTUTAKO AZKEN DEKRETUEN BERRI EMATEA**

Azken saioaz geroztik onartutako Presidentetza Dekretuen berri eman da:



---

Azaroaren 20ko 562/2019 PRESIDENTETZA DEKRETUA, 2019ko azaroko nomina baimendu, hori ordaintzeko betebeharra aitortu eta ordaintzeko agindua ematekoa.

Azaroaren 26ko 63/2019 PRESIDENTETZA DEKRETUA, hondakinak biltzeko sentsibilizazio-kanpaina kontratatzekoa.

Azaroaren 26ko 64/2019 PRESIDENTETZA DEKRETUA, Hondakinak Prebenitzeko Europako Asterako eskoletan Hezkuntza-jardunaldiak emateko eta prestatzeko kontratuarena.

Azaroaren 28ko 65/2019 PRESIDENTETZA DEKRETUA, gaikako bilketa-zerbitzurako edukiontzia hornitzeko kontratazioarena.

Abenduaren 4ko 66/2019 PRESIDENTETZA DEKRETUA, Laudioko jardunaldiaren dinamizazioaren esleipenarena.

**Batzordeburuak** jakinarazi du 63. eta 66. dekretuen artekoak ingurumen arloko proiektuak direla eta aurreko legegintzalditik datozela. Nahiz eta Presidentetza ebazpenaren bidez egokitu diren, Tokiko Gobernu Batzarrean jakinarazi dira.

Jarraian hitz egiteko txanda ireki du.

Ez da eztabaida gehiagorik sortu eta denak jakinaren gainean geratu dira.

Eta beste gairik ez dagoenez, bilkura amaitutzat eman da goian adierazitako eguneko **13:24ak direnean**. Era berean, batzordeburuak eta neuk, idazkariak, izenpetu dugu akta hau, eta, neuk idatzitako guztia egiaztatzen dut.

**BATZORDEBURUA:** Sin.: Encina Castresana Astarloa

**IDAZKARIA:** Sin.: M<sup>a</sup> Virginia Carcelén García